

ta iñok be ez dau jakingo, unetxo baten, izarrak alkarri begira egozala, zu etorri ziñanik".

Zugatzak loraz jaztean joan zan, udabarria be oraindik neskatil zala. Lorak osoan zabaldu dira arrezkero, ta nik dei dagitsot: "Itzul, ene alaba. Aurak loraketan dabiltz, eta zoratzeraiñoan jolas egiten dabe, areik bota ta bota. Zu loratxo baten billa etorri ba'zatoz be, nok batxo orren utsunea igarriko ?

Bizia bai ondatzaille ! Orduan jolasten ziranak, gaur be orrela diardue. Neuk dantzut arein soiñu ta bane algara, eta deiez naukazu: "Itzul, ene alaba. Maitasunez gaiñezka dago zure amaren biotza, eta etorri ba'zentorkez, mosutxo batgaitik ez zaitu iñok begitan artuko".

34

LENENGO JAZMIÑAK

Jazmin oneik, jazmin zuri oneik !... Lenengo aldiz dirudi bete yatazala eskuak jazmiñakaz, jazmin zuri oneikaz.

Maite izan ditut gaiñera eguzkiaren argia, zerrua ta lur muskerra. Ibaiaren leiar marmalaria entzun dot gau-erdiaren illunean. Bakartadeko bide-oker-unean, udazkeneko eguzki-sartzeak bidera urten daust, emaztegei batek baietz esateko bere buru-zapia edegiko ba'leust lez...

Baiña nire oroimenak gozo dirau oraindik neurre aur-eskuetan euki nebazan len-jazmin zuri areikaz.

Zenbat egun alaikor nire bizian ! Nik bai barre zori ontsuakaz, jai-gauetan ! Zenbat kanta abestu dodan astiro, euritan, goiz arrez ! Eta bakulazko illunabar sortak apaindu daust samea, maitezko eskuz eundua...

Baiña nire biotza usaintsu dago oindiño, nire aur-eskuak bete ebezan len-jazmin eze areikaz.

Jazmin oneik, ai, jazmin zuri oneik !

35

PIKONDOA

Esaidazu, urmael ondoan zutik dirauzun pikondo soil-uldua, zure adarretan abi egin eben txoriak itxi ta aztu zaituen lez, zu be umeagaz aztu ete zara onezkero ? Gaur ez zara gogoratzen, bear bada, zelan jarten zan leioan, lurrari oratzen dautsoen zure suster orrein naspillak sor ta lor eukalarik ?

Emakumak urmaelera etozan euren usulak, erradak urez betetera, ta zure geriza luze baltza uretan biurtzen zan, loak itxartu nairik burruka dagian lez. Olatu pitiñetan dantzatzen zan eguzkiaren argia, anezka txiki urduriakaz urrezko miesa bat euntzen ba'liardue. Ertzez-ertz, bedar zut artean, aate bik uger egien euren itzal gain...